

DE MONUMENTO A LOS PERPETRADORES A MUSEO-MEMORIAL

Resumen ejecutivo: Informe del comité de personas expertas
sobre la transformación del monumento a los caídos de Pamplona



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

A continuación, se recogen las principales conclusiones del informe realizado para la transformación del hasta ahora denominado Monumento a los Caídos de Pamplona en un centro de memoria democrática y denuncia del fascismo. Este informe ha sido realizado tomando en consideración experiencias diversas, nacionales e internacionales, en investigación histórica y gestión de espacios memoriales,

1. Consideraciones iniciales:

- Este proyecto de transformación supone un reto complejo e ilusionante al tratarse de una de las manifestaciones más elocuentes de apología del franquismo y de glorificación de los perpetradores de persecuciones, matanzas y otras violaciones de derechos humanos, proyectado con voluntad de dominio simbólico sobre la ciudad, generando sentimientos de rechazo en buena parte de la sociedad, especialmente entre los sectores y familias afectados por la represión.
- Este comité entiende que hay que abordar la transformación profunda de este edificio, tanto en su aspecto exterior como en su interior, de manera que estética y discursivamente suponga una ruptura clara y evidente con los valores antidemocráticos que encarna. El comité propone que la transformación quiebre su dominio simbólico sobre la ciudad e impulse una memoria democrática basada en la denuncia de los fascismos y la defensa de los derechos humanos.
- El diseño de los contenidos de este nuevo espacio debe realizarse desde una perspectiva global de la modificación del edificio, atendiendo a cuestiones museológicas y museográficas, urbanísticas y de gestión.
- El proyecto de transformación del edificio complementará a los otros espacios y proyectos de memoria ya existentes en Pamplona y Navarra, consolidándola como “ciudad con memoria”, con vocación de proyección estatal e internacional.

2. Planificación y gestión del proyecto:

- El comité, partiendo de experiencias internacionales en esta área, ha valorado que la figura más adecuada sería la de “Museo Memorial” (“Memorial Museum”), un planteamiento más ambicioso, y por ello más interesante para la ciudad a medio y largo plazo
- La consideración de Museo Memorial conlleva poner en práctica los principios recogidos en la Carta Internacional de Museos Memoriales del Comité Internacional de Museos Memoriales y de Derechos Humanos (ICMEMOHRI).
- La gestión del monumento debería planificarse desde los primeros pasos del proyecto, garantizando para ello la solidez del proceso de cara a su pervivencia en el futuro, desde la necesaria complementariedad entre el diseño de contenidos, el proyecto museográfico y el proyecto arquitectónico.
- Un proyecto de esta envergadura se asienta en la colaboración entre diferentes instituciones y entidades, y necesita garantías estructurales que sostengan el proyecto al margen de los vaivenes de la coyuntura política.

- El Museo Memorial sitúa sus actividades en coordinación con los diferentes centros y espacios memoriales de Navarra, y de manera especial con el programa Escuelas con Memoria impulsado por el Instituto Navarro de la Memoria.
- El desarrollo del proyecto y su posterior gestión debe desarrollar mecanismos de participación ciudadana, especialmente con las asociaciones memorialistas.
- Es conveniente realizar un registro arqueológico de la intervención en el edificio, y posibilitar visitas de la ciudadanía durante el transcurso de las obras.

3. Ejes de contenidos:

- El nuevo Museo Memorial mantendrá espacios para la programación de actividades temporales relacionadas con las vulneraciones de derechos humanos y el auge de movimientos neofascistas en el presente. En cualquier caso, el contenido principal, desarrollado en la exposición permanente, se estructurará a partir de tres grandes ejes.
 - » El primero de los ejes está vinculado a la propia historia del edificio, desde su diseño hasta su actual transformación, y al contexto social y urbanístico en el que nace, marcado por el expolio y la acumulación de riqueza en una élite y la miseria generalizada. Presentará las políticas de memoria del franquismo, así como el proceso que ha llevado a la creación de un centro de memoria democrática y denuncia de los fascismos.
 - » El segundo eje analizará de manera crítica la elaboración de un discurso de glorificación de los perpetradores, a partir de la construcción del concepto de “caídos”, una comunidad simbólica en la que se engloban tanto los responsables de persecuciones y matanzas como miles de jóvenes alistados forzosamente. Además, se presentarán también las consecuencias de la represión, atendiendo a la realidad de las víctimas del franquismo.
 - » El tercer eje abordará la gestación toda una cultura de guerra en torno al concepto de cruzada, atendiendo también a los valores de género que conlleva y a sus vinculaciones con las políticas coloniales y la construcción de estereotipos raciales. Ante las pinturas de la cúpula mostrará los daños de las culturas políticas belicistas, fomentando una cultura de paz basada en el respeto de los derechos humanos y la resolución dialogada de los conflictos.
- El desarrollo de esos contenidos se fundamenta en las contribuciones de la historia como disciplina científica, atendiendo a las investigaciones y a la renovación de la historiografía sobre estas cuestiones.
- El desarrollo museográfico del Museo Memorial utilizará los recursos que aportan las tecnologías y las humanidades digitales, posibilitando procedimientos en diferentes formatos para la transmisión de los contenidos del Museo Memorial.

4. Pautas para la intervención arquitectónica:

- Será necesario subvertir las jerarquías que componen el edificio y su dominio simbólico sobre la ciudad, para lo cual la cúpula y el tambor deberán perder su protagonismo, tanto hacia el exterior como hacia el interior, de modo que serán imprescindibles elementos que tamicen u oculten su visión desde plantas interiores y el diseño de un espacio adecuado para visitas guiadas que ofrezcan una interpretación sobre las mismas.
- Para todo esto se ve conveniente la utilización de estrategias y lenguajes artístico-arquitectónicos aplicados en otros espacios patrimoniales y lugares de memoria, estrategias y lenguajes que pueden también ponerse en práctica de manera combinada. Entre todos ellos se valoran las posibilidades de los siguientes: encapsulado, tragaluz, arquitectura-imagen, mirador, espejo o de otra naturaleza.
- La nueva estructura arquitectónica deberá tener en cuenta los usos y necesidades del proyecto entre los que se encuentran: recepción y acceso al equipamiento, exposición permanente, exposiciones temporales, espacios educativos, sala de actos y conferencias, salas de reuniones, archivo y biblioteca, así como usos administrativos, de ocio y de otra índole.
- Resulta conveniente la construcción de edificio o edificios anexos en los que desarrollar parte de esas actividades, edificios que compongan, junto al actual edificio, un conjunto arquitectónico coherente.
- La intervención deberá contemplar el impacto del nuevo edificio no solamente en el conjunto de la ciudad, sino de manera específica en su entorno inmediato, como la plaza de la Libertad, la avenida Carlos III y la calle Aoiz.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

PERPETRATZAILEEN MONUMENTUTIK MUSEO MEMORIALERA

Laburpen exekutiboa: Iruñeko Erorien Monumentuaren eraldaketari buruzko
Aditu batzordearen txostena



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

Gaurdaino Iruñeko Erorien Monumentu deitu izan zaiona memoria demokratikorako eta faxismoa salatzeke zentro bihurtzeari buruz egindako txosten honen ondorio nagusiak azalduko ditugu segidan. Txosten hau egiteko, Espainiako eta atzerriko ikerketa historikoko eta memoriaguneen kudeaketako esperientzia anitz hartu dira kontuan.

1. Hasierako kontsiderazioak:

- Eraldaketa-proiektu hau erronka konplexu eta ilusionagarria da, frankismoaren apologiaren eta jazarpenen, hilketen eta giza eskubideen beste urraketa batzuen perpetratzaileen laudorioaren adierazpen nabarmenenetako bat izaki; hiria sinbolikoki azpiratzeko asmoz eraiki zen, eta arbuioa eragiten du herritar gehienengan, batik bat errepresioa pairatu zutenengan.
- Batzorde honen iritzian, erabat eraldatu behar da eraikina, hala kanpoko itxuran, nola barnekoan, halako moldeaz, non estetikak eta diskurtsoak argi eta irmo apurtuko baitute eraikinaren balio antidemokratikoekin. Batzordearen proposamena da eraldaketak deuseztatu dezala eraikinak hiriaren gainean duen nagusitasun sinbolikoa, eta memoria demokratikoa sustatu dezala, hots, faxismoak salatzea eta giza eskubideak defendatzea.
- Espazio berriaren edukiak diseinatzeko, kontuan hartuan behar dira eraikinaren eraldaketaren gaineko ikuspegi global bat eta alderdi museologikoak, museografikoak, hirigintzakoak eta kudeaketakoak.
- Eraikina eraldatzeko proiektuak Iruñeko eta Nafarroako beste memoriagune eta memoria-proiektu batzuk osatuko ditu, "memoria duen hiri" gisa sendotzeko, Espainian zein atzerrian oihartzuna izan dezan.

2. Proiektuaren plangintza eta kudeaketa:

- Batzordeak, gai honi buruzko atzerriko esperientziak kontuan hartuta, museo memorialaren (*memorial museum*) figura aldeztu du; planteamendu anbiziotsuagoa da, eta, ondorioz, epe labur eta ertainean interesgarriagoa hiriarentzat.
- Museo memorialaren figurak berekin dakar Memoriari eta Giza Eskubideei buruzko Museoen Nazioarteko Batzordearen (ICMEMOHRI) Museo Memorialen Nazioarteko Gutunean jasotako printzipioak praktikan jartzea.
- Proiektuaren hasierako urratsetatik planifikatu beharko litzateke monumentuaren kudeaketa, eta, horretarako, prozesuaren sendotasuna bermatu behar da, geroan iraun dezan, edukien diseinuaren, proiektu museografikoaren eta proiektu arkitektonikoaren arteko osagarritasuna kontuan hartuta.
- Tamaina handiko proiektua izaki, erakundeen eta entitateen arteko elkarlana behar-beharrezkoa da, eta egiturazko bermeak behar ditu, proiektua koiuntura politikoaren aitzin-gibeleetatik at sostengatzeko.
- Museo memorialaren jarduerak Nafarroako memoriaren beste zentro eta leku batzuekin koordinatuta egon behar dira, bereziki Nafarroako Memoriaren Institutuak sustatzen duen Memoria duten Eskolak programarekin.

- Proiektuaren garapenak eta geroko kudeaketak herritarrek, bereziki elkarte memorialistek, parte hartzeko mekanismoak garatu behar ditu.
- Komeni da eraikineko esku-hartzearen erregistro arkeologikoa egitea eta herritarrei aukera ematea obrak bisitatzeko.

3. Edukien ardatzak:

- Museo memorial berriak giza eskubideen urraketekin eta gaur egungo mugimendu neofaxisten gorakadarekin loturiko aldi baterako jarduerak programatzeko espazioak mantenduko ditu. Nolanahi ere, eduki nagusia, erakusketa iraunkorrean garatuko dena, hiru ardatzaren bueltan egituratuko da.
 - » Ardatzetarik lehendabizikoa eraikinaren beraren historiari loturik izanen da, diseinutik hasi eta egungo eraldaketaraino, eta sortu zen gizarte eta hirigintza testuinguruari ere bai, zeinak ezaugarri baitzituen espoliazioa eta elitearen aberastasun pilaketa, eta gehiengoaren miseria. Frankismoaren memoria-politika azalduko du, baita memoria demokratikorako eta faxismoa salatzeke zentro bat sortzea ekarri duen prozesua ere.
 - » Bigarren ardatzak modu kritikoan aztertuko du perpetratzaileak loriatzeko diskurtsoa, zeinaren oinarria baita “eroriak” kontzeptua. Talde sinboliko horrek barnean hartzen ditu jazarpenen eta hilketen perpetratzaileak eta bortxaz armadan sartutako milaka gazte. Gainera, errepresioaren ondorioak azalduko dira, frankismoaren biktimen errealitatea kontuan hartuta.
 - » Hirugarren ardatzak jorratuko du zer-nola sortu zen gerraren kultura oso bat *gurutzada* kontzeptuaren inguruan, arreta jarrita horrek dakartzan genero-balioetan, eta politika kolonialekin eta arraza-estereotipoen eraikuntzarekin dauzkan loturetan. Kupulako margolanak eta kultur politiko gerrazaleen ondoriozko kalteak alderatuko dira, giza eskubideen errespetuan eta gatazkak elkarriketaren bidez konpontzean oinarritutako bakearen kultura sustatzeko.
- Eduki horien garapenaren oinarria dira historiaren ekarpenak, diziplina zientifikoa den aldetik, eta gai horiei buruzko ikerketak eta historiografiaren eguneratzeak ere bai.
- Museo memorialaren garapen museografikoak bitarteko teknologikoak eta humanitate digitalek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliko ditu, hainbat formatutako prozedurak ahalbidetu, eta museo memorialaren edukien transmisioa egiteko.

4. Esku-hartze arkitektonikorako jarraibideak:

- Eraikinaren hierarkiak eta hiriaren gaineko nagusitasun sinbolikoa irauli beharko dira. Horretarako, kupulari eta danborrari protagonismoa kendu beharko zaie, hala kanpoaldean, nola barnealdean. Beraz, ezinbestean ipini beharko dira horiek barneko solairuetatik ikustea zaildu edo eragotziko duten elementuak, eta espazio egoki bat diseinatu beharko da margolanen interpretazioa eskainiko duten bisita gidatueterako.
- Hori guztia egiteko, komeni da beste ondarezko espazio eta memoriagune batzuetan aplikatutako estrategia eta lengoaia artistiko-arkitektonikoak erabiltzea, batera praktikan jartzen ahal diren estrategiak eta lengoaiak. Horietatik guztietatik, aukera hauek balioetsi dira: kapsulatzea, argi-zuloa, irudi-arkitektura, behatokia, ispilua edo bestelako naturaleza.
- Egitura arkitektoniko berriak kontuan hartu beharko ditu proiektuaren erabilerak eta beharrak, tartean, hauek: ekipamendurako sarbidea eta harrera, erakusketa iraunkorra, aldi baterako erakusketak, ikasgelak, ekitaldi eta hitzaldi aretoa, bilera-gela, artxibategia eta liburutegia, erabilera administratiboak, aisialdikoak eta bestelakoak.
- Komeni da eraikin atxikiren bat edo batzuk eraikitzea, aipatu jarduera horietarik batzuk egiteko. Eraikin horiek, egungo eraikinarekin batera, multzo arkitektoniko koherente bat osatu beharko dute.
- Esku-hartzeak kontuan hartu beharko du eraikin berriak hiri osoan izanen duen inpaktua, bereziki hurbil-hurbileko ingurunean, hala nola Askatasunaren plaza, Karlos III.a hiribidea eta Agoitz kalea.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala